

...eta

# Kitto!

929 zkia.  
2015-V-8



**40 urte.**  
**gaitasunak**  
**lantzen**



DAZEL



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA  
IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

# OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Konsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan

R.P.S. Nº 149/00 I.L.G.



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABERO ORDUTEGIA**



**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Autran Institutoa, Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza.

**New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso Doktorea.**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## ASTEAN ESANAK

"Sindikatura, futbol taldea eta aurrezki kutxa bizitzan sekula aldatzen ez ziren hiru gauza zirela hazi ginen, baina aldatu da. Futbol taldea ez, horri eusten zaio, baina besteak..."

(MIKEL ELORZA,  
ZUTABEGILEA)

"Gizakiondako, abiadura beti errepresentatzen da ezkerretik eskumara. Geldiko irudiekin ere, mugimendua adierazteko, objektuak eskumara okertzen dira, hau da, mugitzen diren aldera, okertze hori abiadura gisa interpretatzeko. Baina ez da mendebaldekoan zeozer, ezkerretik eskumara idazten dugulako eta italica tipografia erabiltzen dugularen kontua: eskumatik ezkerreara idazten dutenek ere, hebraieraz esaterako, abiadura ezkerretik eskumara adierazten da"

(PETER WALKER,  
PSIKOLOGOA)

"Zaintza elektronikoa munduak ikaragarriko aldaketa eman du. Gaur egungo egoera beldurtzeko modukoa da, jende guztia argazkiak ateratzen, geratu barik, gure gizartea bide batez polizia betetzeko. Lehen polizia batek tortura erabiltzen bazuen informazioa jasotzeko, orain Facebook orrialdeak begiratzearekin nahikoa izango du"

(JUSTO NAVARRO,  
IDAZLEA)

"Jende asko haserretzen da, baina oso gutxi mugitzen dute ipurdia. Ea behingoz gizateria gizartatzen dugun. Hala ere, itxaropenaren militantea naiz, hori baita fedearen giharra eta bertute eraginkorra"

(SOR LUCIA CARAM,  
MOJIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**KOKALDE.**- Kokoteko mina. Gaztelerazko 'tortícolis'. Kokot inguru. "Ohian nunbait postura txarran egin dot lo eta kokaldixakin esnatu naiz".

**KOKILDU.**- Atzera egin, koldartu. "Bestiaren harrokerixen bistan, kukilduta gelditu zan". Uzkurtu, makurtu, gaztelerazko 'acurrucarse, encogerse'. "Hotzakín kokilduta, etxezulotik urtetzen ez dabela bizi da".

## eskutitzak

### ESKERRIK ASKO, BIHOTZEZ, EIBARKO HERRIARI

Eibarren bizi garen Nepaldarrek jendaurrean eskertu nahi dugu Nepalekin eta lurrikararen biktimekin euskal herritarrek erakutsi duten elkartasuna. Untzagan, Elgoibarren eta Mendaron jarri ditugun informazio-mahaietatik jende asko pasatu da eta gure herriarekiko adierazi diguten maitasuna eta elkartasuna jaso ahal izan dugu.

Bereziki Gorka Errasti Eibarko Udaleko Inmigratio Teknikariari eskertu nahi diogu gure alde egindako lana, asko erraztu baitigu dena. Gugandik oso gertu izan dugu lurrikara izan zenetik. Eskerrik be-roenak eman nahi dizkiegu Pedro Escribano zinegotziari eta Miguel de los Toyos alkate jaunari ere. Eta baita lagundu diguten beste askori: Jaime Esparza, Fernando Retolaza (bere argazkiekin), Aran-

tza Arrieta, Gurutze Gorriko Guadalupe Ruiz eta Sonia Gisasola... Eta baita Eibar, Elgoibar eta Mendaroko Udalei eta hiru herri horietako biztanleei.

Jendeak bere elkartasunarekin 5.758,42 euro eman digu; euretako 3.846,72 Eibarren bakarrik. Diru hori Nepalera laguntza bidaltzeko Gurutze Gorriak duen kontuan ingresatu dugu. Laguntzen jarraitu nahi duten guztiak Gurutze Gorriarekin jarri daitezke harremanetan.

Barixaku honetan, maiatzaren 8an, lurrikararen biktimen omenezko elkarretaratzea egingo dugu Untzagan Nepal irudikatzen piztuko ditugun kandlekin. Ekitaldia gaueko 21.00etan egingo dugu eta eibartar guztiak gonbidatzen ditugu bertara.

**EIBARKO NEPALDARRAK**

### ATXILOTUAK ASKATU!

Eguaztenean polizia lau gazte atxilotu zituen. Lau gazte horiek beste 28 gazteekin batera epaitu zituzten abenduan. Fiskalak, epaiketaren azken saioan, 28 gazteetatik 12 absolbitu zituen. Geratzen ziren 16 sententziaren zain lagata.

Eguaztenean Auzitegi Nazionalak sententziaren epaia eman zuen, 16 gazteetatik bederatzi absolbituz eta beste zazpiak sei urteko espetxe zigorrera kondenatuta. Sententzia atxilotaketen bitartez egin zuen publiko, zazpi gazte horietatik lau atxilotuz. Horrela jakinarazi zien gazteei, haien senideei eta euskal jendarteari sententziaren epaia.

Atxiloteta horiek Ertzaintzaren laguntza eta kolaborazioarekin eman ziren eta hori gogor salatu nahi dugu. Ertzaintza eta horiei aginduak ematen dietenek, beste behin ere, espainiar estatuaren morroi direla erakutsi baitute. Hau da espainiar estatuak eskaintzen dion bakea euskal jendarteari: beldurraren bakea, eta zigorraren bakea.

Gazteria geldiezina dela gogor aldarrikatu nahi dugu. Gu gara oraina eta etorkizuna! **Adi mobilizazioei!** Gora euskal gazteria! 28ak ere Libre! Jo Ta Ke atxilotuak askatu arte!

**EIBARKO ERNAI**



Euskara Elkarte

**ARGITARAZTZAILEA:** ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**Gipuzkoa**  
BERRIA

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

## T. Etxebarria Sarixen zidarrezko ezteiak

Aurreko asteko eguenian banatu zittuen 25. Toribio Etxebarria Sarixak Coliseo antzokixan. Enpresa Proiektuen atalian, aurtengo irabazliak Deneb Medical eta Infectoscan (Teknologixa Sarixa) izan dira; Enpresa barrixen atalian, barriz, Hapiick-Intelligent Delivery (Enpresa Barri Sarixa), Ibon Systems (Teknologixa Sarixa) eta Vitia Soporte Medico Avanzado S.L. (Naziñoartekotze Sarixa) sarittu dittue; eta Ekimen enpresarial eibartarrari aitortpena, barriz, Kirolbet-ek jaso dau. Eibarko udalaren eta Bic-Berrikanen eskutik sortutako premixuak zidarrezko ezteiak bete dittue eta, "25 urte ametsak josten" goiburuari jarraituta. Sari bana-keta ekitaldixa beste batzuetan baiño ikusgarriagua izan zan eta, bestiak beste, Oreka TX taldiak eta Ortzi Acosta akrobatik hartu eben parte.



tsak josten" goiburuari jarraituta. Sari bana-keta ekitaldixa beste batzuetan baiño ikusgarriagua izan zan eta, bestiak beste, Oreka TX taldiak eta Ortzi Acosta akrobatik hartu eben parte.

## Liburuak Eibar-Sahara alkartiarendako

Eibar-Sahara alkartekuak bixar 10.00etatik 12.00etara Txonta kaleko 42. zenbakixan daken lokalian egongo dira, jendiak eruan nahi detsazen bigarren eskuko liburuak jasotzeko



prest. Hillaren amaieran kamioia bidaliko dabe Getxora, jendiak emondako 2.500 euruekin erosi daben kakao, mermelada eta gailletekin. Hórrekin batera urtian zihar batzen juan diran ohial, bizikleta estatiko eta josteko makiñak be bidaliko detsez kanpamentuetako errefuxiatueri. Bixen bittartian, baten batek horrelakorik oparitzeko asmua euki ezkeru, oindiok sasoiz dabil. Alkartekuak aurreratu deskuenez, aurtengo udan Saharako hiru ume etorriko dira, euretako bat Eibarko familia batengana, eta alkartian ume hórrendako hainbat gauza gustora hartuko leukiez: erropak, zapa-tillak, automobillian jartzeko elebadoriak...

## Dena prest San Isidruetarako

Datorren asteko barixakuan San Isidroren omenezko jaixa ospatuko dabe basarritarrak Arraten eta, urtero lez, Debemenek 11.00etan hasiko dan egun osorako programia preparau dau, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Debako udalen laguntasunarekin. Aurten be egun horretan Arratera autobusez juan nahi dabenendako dohaiñeko zerbitzua eskinduko dabe herri guztietan. Eibartik 10.15ian urtengo da autobusa, Ego-Gaiñetik. Bazkarirako txartelak, bestalde, Kantabriant bertan dagoz salgai (argibidietarako telefonua, 943121262).



## Lapikotxikiko kolaboratzaille fiña

Estibalitz Gonzalezek egin zuen "Lapikotxiki" liburua osatzeko gure astekarian kaleratutako kapituluetan parte zuzena izan zuen aste honetan ezustean laga gaittuen Nerea Gallastegik. Bere alaba Maddi bihurtu zen liburu horretako protagonista. ...eta kitto!-tik gure atsekabea eta elkertasuna adierazi nahi diegu senide eta lagunei.



## "Ondo egindako lana" Armerian martitzenian

Datorren martitzenian 18.30xetan hasiko da "Ondo egindako lana" solasaldixa Armerixa Eskolan. Datorren asteko saiuan Manuel Irao-lagoitia (Microdeco) eta Miguel Lazpiur (Lazpiur Taldea) enpresa gizonak jardungo dabe berbetan, Sabin Azua, B+I Estrategy-ko zuzendarixak gidatuta. Bestiak beste enpresa munduan eurak izandako bizipenak azalduko dittue. Solasaldixak, bestalde, aberastasuna sortu nahi bada industria indartzeko daguan premiñaz hausnartekia egitteko tartia emongo dau. Juan nahi dabenak hillaren 11ra arte eukiko dau izena emoteko aukeria. Informaziño gehixagorako 943203244 telefonora deittu, ikastaroak@armeriaeskola.com helbidera idatzi edo armeriaeskola.com webgunian begiratu

## Kartetan jaun eta jabe

Eguaztenian alkatiaren eskutik garaikur bana jaso eben Aquilino Gamizek eta Rafael Zubizarretak Beheko Tokia jubilau etxian, jubila-tu etxien arteko txapelketan, musian txapel-dun geratzia lortu eta gero. Bikotiak oin arte beste iñork lortu ez daben markia egin eban martxuaren hasieran, Beheko Tokixan mus, tute eta briskako txapelak, hirurak bereganatu zittuan eta. Jubilau etxien arteko txapelketan, baiña, joko bakarrian parte hartzeko aukeria zekenez, musian egittia aukeratu eben, eta hor be txapel-dun geratu ziran lagun bixak.



## autuan

### LEGARREKO JAIXAK

Datorren eguaztenian (13an), 19.00etan Legarreko jaixak preparatzeko billeria egingo da Legarre Gain alkartian. Aurten jaixak bosgarren aldiz jarraixan antolatuko dittue eta auzoko guztiak antolakuntzan parte hartzera animau nahi dittue, "danen parte-hartziarekin jai edarrak prestatzeko".

### 1985-KUEN BAZKARIXA

Ekaiñaren 6xan egingo dabe bazkarixa 1985. urtian jaixotakuak eta jua nahi dabenak lehenbailehen emon biharko dau izena, horretarako epia maiatzaren 15ian amaittuko da eta (50 euro sartu bihar dira Laboral Kutxako ES 84 3035 0023920230087143, izen-abizenak ziheztuta). Egunion bertan 13.00ian alkartuko dira Untzagan, Oishi taberna, zuzenian taldiaren erretratua etaratzeko. Bazkarixa 15.00etan hasiko da, Ipur sagardotegixan eta bazkalostia musikiarekin girotuta egongo da. Argibidietarako eibar1985kintada@gmail.com helbidera idatzi.



## 1.000 lagun Maiatzaren 1ian

Maiatzaren Lehenian milla bat lagun alkartu ziran gurian, LAB sindikatuak antolatu eban eskualde maillako manifestaziñuan. Untzagara bueltan, ekitaldi politikuari ekin jakon eta, sindikatuak aurten 40 urte bete dittuala eta, bihargiñen eguna militante historikueri omenaldi-xa egitteko aprobe txau eben. Udaletzeko arkupietan egindako herri-bazkarixarekin umore onian agurtu eben eguna.



**Funeuskaadi**  
Funeraria-Ehortzetxe  
Mugica

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



**eitek**  
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

**Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena**



[www.eitek.net](http://www.eitek.net)

## Ospa! Eguna

Guardia Zibillak hamendik kanpora juatia nahi daben Eibarko Ospa Hemendik taldiak Ospa! Eguna antolatu dau bixarko. Programari 14.00xetan ekingo detse, Urkizun egingo daben bertso bazkarixarekin. Unai Gaztelumendi, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendik egingo dabe bertsoan eta txartelak erosteko Beleko, Depor eta Hirurok tabernetara jua leike (8 eurotan dagoz salgai). Eta arratsaldian, 18.00xetan manifestaziñua abiatuko da Untzagatik, Guardia Zibillaren kuarterelaraño.

Horrekin batera, Ospa! Egunaren harira atxikimenduak batzen ibilli dira eta idatzixarekin bat egin daben eragille eta musikarixen zerrandan Jaixak Herrixak Herrixandako, Amañako jaixak, Eibarko gaztetxia, Asola Berri Bola Joko Kirol Elkarte, Goldatu, Eibarko Sortu, Eibarko LAB, Eibarko EH Bildu, Eibarko Ernai, Nalua Eibarko Talde Feminista, Ekinocio, Eroa Nazan, Mursego, Su Ta Gar, Seiurte eta Miren Narbaiza eta Ander Mujika (Napoka Iria) dagoz.



## Giro edarra Santa Kurutzen

Primeran ibilli ziran aurreko asteburuan Gorosta eta Mandiola auzuetakuak ospatu zittuen jaixekin bat egittera animau ziranak. Atzera be basarritar gaztiak protagonista dittuen jolasak jaixak kolore bizixekin apaindu zittuen eta erritmua, barriz, Mugi Panderua taldiak ipiñi eban. Jai batzordiak zozketatu eban generoz betetako karretilla 461 zenbakidun txartelaren jabiarendako izan da. Erretratuan ikusten dozuen moduan, irabazliak pozarren jaso eban sarixa martitzenian.



## Eskolako Agenda 21eko plenua

Aurreko ikasturtian hasittakuari jarraipena emon detse ikasliak 2014-2015 kursuan be eta, Eskolako Agenda 21 programaren barruan elikadura jasangarri eta osasuntsua lantzen segidu dabe. Urtero lez, ikasliak urtian zihar egindako biharraren ondorixuak eta egoeria hobetzeko proposamenak udaletxian presentau zittuen, aurreko asteko eguenian egin zan pleno berezixan. Udalbatzarrian herriko zazpi ikastetxetako (Amaña, Arrateko Andra Mari, Urkizu, San Andres, J.A Mogel, DBH Itzio eta Mogel Isasi) 80 bat ikasle batu ziran.



Elikadura jasangarri eta osasuntsuaren gaixa lantzeko, bestiak beste, kontsumo eta elikadura ohitturen inguruko inkestak egin dittue, eskolako jantokixan sortzen diran hondakiñak aztertu dittue, erlien eta elikaduraren artian dagan loturia erlezain batekin bilduta landu dabe eta hondakiñen inguruko gogoetia egin dabe.



## Kaleetan Kantuz zapatuan

Bixar 19.45xetan abiatuko da Untzagatik Kaleetan Kantuz abesbatzak, Musika Eskolakuak lagunduta hillian behin egitten daben kalejira. Betiko lez, eurekin bat eginda kantatzera animatzen diranak besuak zabalik hartuko dittue.



Azido hialuronikoko  
ile-tratamendu berriak

# Khôl

## Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

# ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gazteleraetik euskarara,  
eta ingeleseetik euskarara.

## ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

# Herriko denden ongi-etorria udaberriari

Abenduako erosketa-bonoek izan zuten arrakastaren ondoren, Eibar Merkatal Gune Irekiak antzerako ezaugarriak izango dituen kanpaina bultzatuko du udaberri honetan: oraingoan ere 40 euroko prezioa izango duten erosketa-bonuak banatuko dituzte, erosketetan 50 euroko gastua egiteko aukera eskainiz. Funtzionamendua abenduako bera izango da; eta orduan bonu guztiak agortu ziren. Bezeroek Eibar Merkatal Gune Irekiaren bulegoetatik pasatu beharko dira (Untzaga, 7an -Artola jate-txarearen ondoan) eta han, 40 euro ordainduta, bonua jaso. As-telehenean zabalduko da bonuak hartzeko epea eta hilaren 15etik 31ra arte egin ahal izango ditu jendeak 50 eurora arteko erosketok, beti ere Eibar Merkatal Gune Irekiaren kide diren dendetan. Berrehun dira, guztira, horko partaide diren establezimenduak: eurretatik 150 inguru hainbat sektore eta arloko denda eta zerbitzuek osatzen dute, eta beste 50 bat ostalaritza-tako taberna/jatetxeak dira.

Abenduako kanpainarekin alderatuta, bi dira ezberdintasun nagusienak: alde batetik, bonua txartelarekin erosi daiteke; eta, bestetik, bonuak pilatu daitezke eta bonu bakoitza bi erosketetan banatu daiteke, bakoitzean gutxienez 25 euroko gastua eginez. Erosketarako bonuak eibartarrek bakarrik erosi ahal



izango dituzte; horregatik, NAN-a eskatuko zaie eta bakoitzak bonu bakarra erosi ahal izango du. Merkatal Gune Irekiak Eibarko bezeroei eskaintzen dizkien %20ko deskontu horiekin merkatal aktibitatea berpiztea, bezeroak fidelagoak izatea eta bai dendak eta baita bezeroak ere irabazten ateratzea nahi dute. Kanpaina Eibarko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikorako eta Konpetitibitateko Sailak subentzionatzen dute. Ekimen hau gaur bertan aurkeztuko dute Eibar Merkatal Gune Irekiak, Gipuzkoako Merkatal Federazioak, Eibarko Udalak eta El Corte Inglesek egingo duten prentsaurrekoan.

## EROSKETA BONUA

**50€ko BALIOA DU**  
**EROS EZAZU 40€ren TRUKE!**

**BALDINTZAK:**

- 2015/05/15etik 2015/05/31ra arte baliagarriak.
- Bonuak metatu eta 25 € edo gehiagoko bi erosketetan banatu daitezke.
- Eibarren bizi direnentzat bakarrik.
- Bonu bat NAN edo erroldatze bakoitzeko gehienez.
- Txartelarekin ordaindu daiteke.

\* Sendagaiak ez dira sartzen. Parafarmaziako produktuentzat baliagarri.

**DENDAK/ZERBITZUAK**

Afede  
Aixa  
Albizu Harategia  
Aldazabal  
Solar Elikagaiak  
Antxon  
Aramburu  
Arregi-Dominguez  
Artamendi  
Askasibar Intersport  
Astigarraga  
Audiocentro Igmar  
Autoserb. Azpiri  
Autoserb. Villalba  
Baglietto  
Bambi  
Beep Eibar  
Benicoba  
Burbujas y Más  
Capi  
Cedry  
Optika Beittu  
Chiquitín  
Comercial Zabala  
Roca Konfekzioak  
Vieco Konfekzioak  
Corral  
Cortinas y Pers. Eibar  
Dandara  
De Capricho  
Desván  
Dibutec  
Muñoz Dietetika  
Dirdai  
Ditare  
Doroti  
E&M Argazkiak  
Edueme Ilepaindegia  
Eguren  
Eibarko Bizikleta  
Eibarsat  
El Corte Inglés  
Gaur Elektrizitate  
Electro-Aguirre  
Erreal Kiroiak  
Azitain Gasolindegia  
Eibar Gasolindegia

**OSTALARITZA**

Afrikan Haritza  
Akara  
Albert  
Aldaz  
Anardi  
Arkupe Gastropub  
Astelena Gastroteka  
Atalaya  
Aterpe  
Baisi  
Bakoleku-Ardotegia  
Bar Pizzeria Bossa  
Bar York  
Beleko Taberna  
Birjiñape  
Klub Deportiboa Eibar  
Tas-Tas Kafe Antzokia  
Casino Artista Eibarrés  
O'hara Garagardotegia  
Chalcha Jatetxea  
Degustación Boulevard  
Ego Gain  
El Corte Inglés  
Ez-Dok  
Forchetta  
Foxter  
Gurbil  
Gure Leku  
Guridi Rugby  
Hirurok  
Kaiton  
Katu Kale  
Koskor  
Kultu  
Lanus  
Laurel & Hardy  
Leo  
Maixa  
Mesón Aguiñaspi  
Dishi  
O'jays Irish Tavern  
Ongietorri  
Paulaner  
Pozkari  
Punto y Aparte  
Portalea Jatetxea  
Stow  
Sokoa  
Suberoa  
Telepizza  
Trinkete  
Tunelpe  
Txoko  
Vivaldi  
Xok  
Zubigain

# + OSASZUN GODA

## Dentistak



**Arat**  
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU  
INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

 Clinicas dentales

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS: 53/13



**bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Asko dira**  
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com



**Pedro Etxebarria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com



**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**  
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**HEMEN ZURE  
TOKIA izan  
nahi baduzu ...  
... deitu  
943-206776  
telefono  
zenbakira**




## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
**ARRAGUETA, 20**  
TLF: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistikak



**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikia

• **Miopia ebakuntzak**  
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**




BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

**Coro Ortiz de Urbina**  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Ikasketa teknikak

Tel. 605 75 75 06

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako) .....

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO**  
**PSIKOLOGIA**  
**KABINETEA**



**Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
**PSIKOTERAPIA**

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)  
943 20 22 66

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR  
Zuberoa, 4 .....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tef. 943206823 eta 686859023

Gureak sortu zala 40 urte betetzen dira aurten eta, urtemugaren harira, maiatzian erakusketia zabalduko dabe Armagintzaren Museuan. Horrekin batera, desgaitasunen bat dakenen errealidadia jendiari, batez be umieri gerturatzeko asmuarekin, taillar berezixak antolatu dittue, Gureak-eko bihargiñekin batera eta jokuaren bittartez, jarrerak eta laguntasuna emotia modukuen garrantzixa hobeto ulertu deixen. Izan be, holakuak zelako inportantiak diran ondo baiño hobeto dakixe Gureak-ekuak, "gaitasunak lantzen" lau hamarkada daroiate eta.



**A**rgazkixa, bideuak, mensajien-arbola eta bestelakuak ikusgai ipiñiko dittue, erakusketia ikustera doiazanak hórre-ri begiratuta Gureak-en historixiari errepasua emoteko aukeria euki deixen. Erakusketiari laguntzeko antolatu dittuen "Esperientzien taillarrak", barriz, maiatzaren 21ian eta 22xan goizetik (10.00etatik 13.00era) eta arratsal-detik (16.00etatik 18.00etara) eta 23an baka-



## Berrogei urtian gaittasunak lantzen

rrik goizez eskinduko dittue. Eibarren lehelengoz zabalduko daben erakusketia gurian itxi eta jarraixan, herririk herri eruango dabe, Gureak taldiak taillarra dakan toki guztietan ikusgai ipintzeko.

Izan be, gaur egun Gureak taldiaren barruan daguazten taillarren zerrendia askok us-te leikiena baiño askoz luziagua da. Bakarrik Gipuzkoan dozenatik gora lantegi dagoz, bestiak beste Arrasate, Azkoitia, Donostia, Bergara, Errenteria, Irun, Lasarte-Oria, Legazpia, Ordizia, Orio eta Ibarren eta gure probintziatik kanpora be, Araban eta Nafarroan badagoz. Eta gure herrixan Eibarren be, Matxarixan badake taillarra, jakiña.

Iñaki Alkorta taldeko presidentiak oin hurrengo egindako adierazpenetan, taldiaren datu ekonomikuen gaiñeko baloraziño oso positibua egin eban: krisi ekonomikuaren gaiñetik, Gureak taldiak 231 lanpostu barri sortu zittuan 2014an eta aurten, bakarrik lehen hiruhillebetekuan, beste 300 lanpostu gehixago. Gaur egunian Gipuzkoako lantegixetan biharrian 4.800 bihargin dagoz. Eta diru kontuetan be gora eta gora egitten ari dira: iaz irabazixak %22 egin eben gora eta hórre-ri 2015ian daroiagun tartian gora egindako beste %6ko igoeria gehittu bihar jako. Tal-diaren barruan azpitaldiak dagoz eta hórre-txen artian automoziónuaren sektoriak euki dau igoerarik haundiña.

### Eibarren, automoziónuan

Hain zuzen be, Gureak Industrial dalakua-ren barruan, automoziónuan egitten dabe biharra gure herriko lantegixan. Iñaki Lasarte, Eibarko langune arduradunak egitten dabe-naren barri emon desku aste honetan ber-



160ttik gora bihargin dagoz Eibarko taillarrian. SILBIA



NEREA,  
Emakume ausarta, langille fiña,  
ama goxua ta maittasunez betia...  
Guretako lagun ezin hobia!  
Zenbat botako zaittugun faltan!  
Agur lagun! -KUADRILLIA-



tan, eguzten goizian Matzariko taillarrara egindako bisitan eta, behin han egonda, bihargiñak martxa betian zelan ziharduen ikusteko aukeria be euki genduan. Eibarko taillarrian kabliaren prozesatzia, elektronikia, operadore lojistikua, plastiko-injekziñua eta muntaiak egitten dittue, bestiak beste eta, arduradunaren berbetan, "oin dala gitxira arte 142 bat bihargin" eguzten. Baiña taldiak dakan gorako joeria gurian be errepikatzen dan fenomenua da. Izan be, Lasartek esplikau zeskunez, "lantegixak proiektu barri biri ekin detse eta, hórrei aurre egitteko, 19 lagun gehixago kontratau dittugu oin dala gitxi. Eta, horrekin batera, taillarra berrantolatu bihar izan dogu". Proiektu barrixak argindarrarendako kontadore elektriko inteligentieri eta Frantziako Ford-endako kableauari lotutakuak dira.

Biharrerako orduan talde bi bereizten dittue: taldietako bat okupaziño-erregimenekuak osatzen dabe eta beste taldia, barriz, enplegurako formaziñokuena da. Eta erregimen okupazional horren barruan, batetik taillarra bera dago eta, bestetik, informatikia eta bestelako jarduerak egitteko tokixa.

Edozelan be, eta kaliañ batek baiño gehixagok pentsauko dabenaren kontra, taillarrian, biharrian pasatzen dabe lanaldixaren zatirik haundiña. Taillarrako arduradunaren berbetan, "batzuk, hamengo bihargiñen bat kaliañ ikusitta, bihar haundirik ez dabela egingo pentsauko dabe, baiña ez da holakorik gertatzen. Izan be, egin biharreko lanak oso zatikatuta dagoz eta, beraz, erraz moldatzen dira bakotzak dittuan gaittasunetara. Eurak egitteko moduko operaziño errazak

**Kablien prozesaua, montajia eta automozifiñuari lotutakuak egitten dittue Matsarixan.**  
SILBIA

izaten dira eta egin biharrekuarekin bete egitten dabe. Biharrerako gaitasuna dakan jendia da".

Edozelan be, jorñada osua egittia larregizkua topatzen dabeneko erdibidia badake: "Zazpi orduak biharrian emotia larregizkua egitten jakuenendako, atenziño personalagua eskintzen jakue Bidean izeneko proiektuari esker: denpora erdixa taillarrian biharrian emoten dabe eta beste erdixa Garagunian bestelako jarduerak egitten. Hamen programan parte hartzen daben 13 lagun dakaguz".

Berrogei urte hónetan lantegiko bihargiñen perfilla kanbixatzen juañ da: "Oin dala urte batzuk gehixenbat Down sindromia zekenak jarduten eben hamen biharrian, baiña gaur egunian gero eta gehixago dira gaitasun mentalen bat dakenak. Hónendako, gaiñera, hamen biharrian ibiltziak mesede haundixa egitten detse, atzera be gizareratzeko modu oso aproposa da".

Taillarrako arduradunari horrelako toki batian jardutiak berezittasunik ete dakan galdetuta, erantzuteko orduan ez eban zalanztarik euki: "Nere biharrik dakan gauzarik polittena jendiarekin dakaten hartuemonak



emoten desta, hamen biharrian daguazenen bizipoza emoten dabe".

### Pauso Berriak

Gureak 1975. urtian Atzegiren eskutik jaixozan, adimen urritasunen bat zekan jendiak horrelako tokixetatik kanpora biharra topatzeko aukera oso gitxi eguzten. Gaur egunian, zorionez, gauzak kanbixatzen doiaz eta adimen urritasuna dakenak, sosiguz sosiguz bada be, lantegi "berezixetatik" kanpora be biharrian ikusten hasi gara. Helburu horri jarraituta sortu zan Pauso Berriak programia, Gureak Itineray eta Atzegik sustatuta. Eibarren, programa horri jarraituta Matzariko taillarratik kanpora biharra topau daben pare bat lagun badagoz: "Euretako bat, Javi, Teknikerren praktiketan jardun eban eta, praktikak amaittuta, han biharrian segitzeko kontratau eben eta gauza bera pasau jakon Nuriari udaletxian".

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

**LASER DEPILAZIOA 30€**


Hanka osoak + Izterondoak 90€

## Masajeak

- Osteopatia
- Teknika metamorfikoak
- Masaje terapeutikoak
- Reflexologia
- Masajeak: Thai, Kaliforniarra, Balikoa



BETILE LUZAPENAK  
GEL ATZAZKALAK  
IA BETIRAKO  
MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

## Gorputz tratamenduak

**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



## Aurpegi tratamenduak

## Plazatik Gaztetxera kanporaketa eta afaria hilaren 15ean

Datorren asteko barixakuan (hilaren 15ean) Plazatik Gaztetxera XIV. Bertsolari Gazteen Txapelketako kanporaketa hartuko du Eibarko gaztetxeak. Eli Pagola Apezetxea, Eñaut Martikorena Lizaso, Josune Arakistain Salas, Ander Zulaika Elola, Saioa Alkaiza Guallar, Alazne Untxalo Erregerena, Maider Arregi Markuleta eta Gemma Urteaga Garmendia bertsolariak jardungo dute gurean, 22.30etan hasita. Aurretik, 20.30etan giroten joateko afaria antolatu du-

te gaztetxeok eta joan nahi duenak Depor, Beleko, Hirurok eta Makala tabernetan eros dezake txartela, 7 eurotan.

Eibarren ez ezik, Sorluzen (gaur), Mutrikun (bihar) eta Elgoibarren ere (hilaren 16an) kanporaketa bana jokatuko dira. Finalerdiak, berriz, Antzuolan (maiatzaren 22an) eta Deban (maiatzaren 29an) izango dira eta, aurtengo txapelketa agurtzeko, ekainaren 13an Plazatik Gaztetxera Eguna ospatuko dute Markina-Xemeinen.

**Plazatik Gaztetxera**  
XIV. BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA

**Kanporaketa**  
**EIBAR**  
**MAIATZAK 15**

afaria 20:30 saioa 22:30

ELI PAGOLA APEZETXEA - EÑAUT MARTIKORENA LIZASO  
JOSUNE ARAKISTAIN SALAS - ANDER ZULAIKA ELOLA  
SAIOA ALKAIZA GUALLAR - ALAZNE UNTXALO ERREGERENA  
MAIDER ARREGI MARKULETA - GEMMA URTEAGA GARMENDIA



## Indianokuak 4 urte

Apirileko azken asteburuan lau urte bete zituen Muzategi kaleko Indianokua gaztelekuak eta, hori ospatzeko, gazteekin batera murala egin zuten, ondoren horren parean "photocall" itxurako argazkiak egiteko. Ederto pasatu zuten gazteek, lehenengo marrazten eta, ondoren, modelo profesionalen antzera argazkilariarentzat posatzen.

## La Salle-ko batxilergoaren agurra

La Salle-Azitaingo 2. batxilergoko ikasleek maiatzaren 16an agurtuko dute 2014-2015 ikasturtea, 11.00etan hasiko den ekitaldian. Mezarekin hasiko dute eguna eta, hori amaitu eta jarraian, ikasleei diplomak eta intsigniak banatuko dizkiete. Hamaiketako eskolan elkarrekin hartuta agurtuko dute ekitaldia.



**"... MUXUZ BETE-BETERIK KOLKOA ETA IRRIBARRE BIHURTUZ MALKOA..."**

*Unax eta Maddiren gelaksak*

**M<sup>a</sup> JOSE RUIZ DE PORRES** Doktorea  
**GINEKOLOGOA**

**T. Etxebarria, 4 - 1. ezk.**

**LEKUALDAKETA**  
**Orain**  
**MADINA**  
**ERRADIOLOGIAN**



**Tel. 943-202857**

**ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA** eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.



**JESIKA MARTINEZ-ALCOCER, artista:**

Eguztenean zabaldu zen Eibarko Armagintzaren Museoan Jesika Martinez-Alcocer artistaren proiektu berriaren erakusketa. Arte ikasketak egin ondoren, orain dela urte bi

ilustrazioa beste euskarri batzutara eramatea eta oihalen serigrafiarekin esperimentatzea erabaki zuen. Eibarren jaio baina Ermuan bizi den gazteak "Animal Culture" erropa-marka sortu du: kamisetak, sudaderak, poltsak...

Erakusketara joaten zareten guztiek Jesikaren diseinuekin gozatzeaz gain, bideo baten bitartez, erropak serigrafiazeko teknika ikusi ahal izango duzue.

## Animal Culture ilustrazioan eta oihalestanpazioan oinarritzen da»

**- Zergatik erabaki zenuen oihalak serigrafiazkoa?**

Arte Ederretako lizentziatura lortu ondoren, arte-ikerkuntzan eta sorkuntzan masterra egin nuen. Ondoren, 2012an Bilbo Arte Fundazioko beka lortu nuen. Ordurarte batez ere eskulturagintzan espezializatua nengo. Tridimensionalitatea eta arte kontzeptuala lantzen nituen. Arte kontzeptualari esker, inbertsio handirik eskatzen ez duten lanak egin daitezke. Bilbo Arte Fundazioan, nire bizitzan lehenengo aldiz, materialak erosteko eta nahi beste produzitzeko baliabideak izan nituen. Han arte-grafikagintza eta eskultura tailerrak nituen. Serigrafiazten erakutsi zidaten. Urte guztia eman nuen egurra eta metakrilatoan serigrafiazten; niretzako guztiz berria zen teknika batekin praktikatzen egon nintzen. Aurkeztu nuen proiektua tridimensionala zen eta obra guztiak serigrafiazten nituen. Amaitu nuenean, eta tailerrean beste lankide batzuk oihalekin egiten zituzten lanak ikusi ondoren, buruari bueltak ematen hasi nintzen. Ehungintza betidanik gustatu zait, oso sakrifikatua da, baina ikasi dudanarekin zerikusia dauka.

Orain Bilbo Arteko tailer horretan erabil-

### ERAKUSKETA

Armagintzaren Museoa (Portalea)  
Maiatzak 6 - 15  
Eguaztena-zapatua: 16.00-20.00  
Domeka: 10.00-13.00

tzaile moduan lan egiten dut, bekadunek eta erabiltzaieek konpartitzen dugu tailerra.

**- Teknika ondo ikasi ondoren, zure marka sortzea erabaki zenuen orain dela bi urte...**

*Animal Culture* ilustrazioan eta oihalestanpazioan oinarrituta sortu dudana marka da. Artisau-ekoizpenaren bitartez edizio mugatuak sortzen ditut. Serigrafia teknika erabilita, diseinu eskusiboak eskaintzen ditut: kamisetak, sudaderak eta oihalezko poltsak, guztiak eskuz estantatuak. Animal-gizakiendako sortutako marka da. Hau da, natura eta kulturaren artean oreka izatea posible dela uste dugun guztiondako sortutakoa. Prozesu guztia nik neuk egiten dut: marrazkia sortu, digitalizatu, fotolotitua egin, pantaila prestatu, pantaila insolatua... Oso sinplea ematen du, baina lan handia eskatzen du. Prozesu guztia ondo ikusteko bideo bat prestatu dut erakusketara ikustera joaten direnentzako; lehenengo diseinuen katalogoa ere ikuste-

ko aukera izango da. Katalogoko argazkiak eta produktuaren argazki asko Eduardo Acebedo argazkilariarenak dira. Gainera, nire ilustrazioak ikusi eta irudi hauen atzetik dauden kontzeptuak, istorioak irakurri ahal izango dira erakusketan. Diseinu gehienek bere istorioa daukate. Poesia eta idaztea asko gustatzen zait: naturarekin eta nire sentimenduekin zerikusia daukaten istorioak idazten ditut.

**- Gaur egun artistendako ez da lan erreza izango aurrera egitea...**

Beka amaitu nuenean Bilbo Ekintzan ekin-tzaileentzako ikastaroa egin nuen. Hango aholkulariak nire marka ezagutzera emateak daukan garrantziaz hitz egin zidan. Sare sozialak asko erabili ditut. Ingurukoek erosi didatenari esker aurrera egitea lortu dut. Baina garrantzitsuena marka ezagutzera ematea da: on-line denda jarri dut eta une honetan leku batetik bestera mugitzen ari naiz, antolatzen diren ekitaldietara joaten naiz: ospakizunak, azoka bereziak... Esate baterako, orain dela gutxi Bilboko Maiatzaren 2ko jaian egon nintzen eta maiatzaren 16an Ermuko "Vertigo Rock" jaialdian egongo naiz. Zuzeneko salmentak oso ondo funtzionatzen du; honi esker poliki-poliki aurrera egin dezaket.



**LUCIA AÑIBARRO ISASTI**  
(2010eko maiatzaren 5ean hil zen)  
**V. URTEURRENA**

**"Ez zaitugu sekula ahaztuko"**  
ZURE FAMILIA





VALENCIAGA



Bidebarrieta, 12

943-202233

udaberri

*Udaberrirako*

BEHAR DUZUN GUZTIA

ospakizunetarako jantziak,  
egunero erabiltzeko erropa,  
moda gaztea eta dibertigarria,  
erropa erosoak eta informalak,

oinetakoak,

konplementoak...

Eibartik irten gabe

udaberriko modan aukera zabala!!!



Twins

Bidebarrieta, 8

943-056082



UNITED COLORS OF BENETTON.

F. Calbeton, 6 - 943 20 85 67

# riko moda




Arragueta, 9  
**irritsa**  
943-127106



GRATZINA

**GRATZINA**  
Zuloagatarren, 1



San Agustin, 3  
943-204181

**Kopina**

## Taldekideek agur hunkigarria eman zioten Mainer Castillori

Levante foball taldeko kapitainak azken partidua jokatu zuen domekan bere taldearekin. Mainer Castillo eibartarrak hamalau denboraldi bete ditu Levanten eta baita ere, tarte-an, Superligaz aparte, Erreginaren lau kopa irabazi. Klubak, bestalde, maiatzaren 23/24ko asteburuan egingo dio ome-

naldia Ciutat de Valencia-n Levante eta Elx taldeek jokatu duten partiduan. Gure herriak foballean eman duen emakume handiena izan da Jesus M<sup>a</sup> Castillo "Txitxia" Eibar FT-ko jokalaria izandakoaren alaba eta Espainiako selekzioko kapitaina izatera ere heldu zen hainbat partidutan.



Mainer Castillo goian izan zuten taldekideek beste behin.



## Ipuruako hiru gimnasta estatuko 25 onenen artean

Horrela izan zen Guadalajaran jokaturako banakako oinarri mailako Espainiako txapelketan: Elene Varela 8.a izan zen, Nahia Arguiz 16.a eta Elena Sudupe 23.a. Ipuruako kadete oinarrikoek denboraldi bikaina burutu dute, taldeka Euskadiko txapela eta Euskalgym tornea irabazita eta banaka Varela eta Arguizek eskuratutako zilarrezko eta brontzezko dominekin Gipuzkoakoan. Orain dela urte bi Ipuruan zebilen eta orain Tolosa Klubekoa den Saroi Eskisabel da kadete oinarri maila horretako Espainiako txapeldun berria.

## Iker Cenzual ehiztaria Euskadiko San Hubertoko txapelduna

Eibarko Diana elkarteko Iker Cenzual ehiztariak San Hubertoko Euskadiko txapela jantzi zuen Arabako Santa Cruz del Pierron dagoen Gazteluko kotoan jokaturako lehiaketan. 14 lurreldeetako txapeldunak izan

ziren parte hartzen, bi baterietan banatuta; bateriak bakoitzeko onenek finala jokatu zuten eta hor Cenzualek ondo aprobetxatu zuen "Dardo de la Copiilla" izen handiko epagneul breton arrazako txakurraren lana berriro ere nagusitzeko. Bere atzetik sailkatu ziren Santiago Bernardo Gipuzkoako txapelduna eta Juan Carlos Artetxe iaz Euskadiko txapela jantzi zuena.



## Debabarreneko txirindulariak Bidasoako Itzulian

Eguaztenean hasi eta bihar amaituko den Bidasoako Itzulian dago, beste 19 talderekin batera, Juanjo Sebastianek zuzentzen duen Debabarrena taldea. Aurreko barixakuan Legazpian eta domekan Urrakiko igoeran izan ziren Klub Deportiboko txirindulariak eta Julen izagirre donostiarra (hain gazte izanda, denboraldiko errebelazioetako izan daitekeena) eta Victor Cordon ermuarra izan ziren ordezkari onenak.



**CERRAJEROS**

**G**

Tel. 943 107 770  
Juan Gisasola, 4  
EIBAR

www.CerrajeroGipuzkoa.com  
cjcerrajeros@gmail.com



LOCKSMITH  
CERRAJERO DE SEGURIDAD  
**UCES**

Homologatutako enpresa  
1502 zkia.

Tel. 943 132 314  
Araba, 27  
ZARAUTZ

**Isasi, 31**  
**943 207 737**

*Etorri!  
Zure etxian  
egongo zara!!*

**KAFETEGIA OKINDEGIA**

**SUTLINDO**

**Egunero 06.00-22.00**

Astelehenetik  
ostegunera  
**PIINTXO-POTEA!**



## Sukiako kadeteak areto-foballeko Gipuzkoako Ligaren garaile

Sailkapeneko lau lehenek hiru puntutan amaitu dute Liga eta orain euren arteko norgehiagokek erabakiko dute zein izango den Gipuzkoako txapelduna. Sukia liderrak Zarautz laugarren sailkatua (3 puntura geratu zen) hartuko du domekan Unibertsitate Laboralean, goizeko 11.30-etan. Beste finalerdian, Arizmendi bigarrenak eta Laskorain hirugarrenak (biak eibartarrendandik bi puntura amaitu zuten) bilatuko dute finalerako txartela.



Gure herriko kadeteen taldeak Liga irabazi du.

## Kalamuakoak bikain Calatayudeko jiu-jitsuko Espainiako Kopan

Aragoiko herrian jokaturako jiu-jitsuko IV. Kopan 350etik gora kirolari izan ziren parte hartzen, estatu osoko hainbat autonomia ordezkatzeko. Kalamuakoek lan bikaina egin zuten: Nekane Muguruzak eta Jose Fernandezek urrezko domina eskuratu zuten junior mailan, Iker Martinezek zilarrezkoa kadeteetan eta, seniorretan, Alba Navarrok eta Muguruzak zilarrezkoa lortu zuten eta Garikoitz Del Barriok brontzezkoa. Muguruzak min hartu zuen seniorretako finalean eta, hala ere, amaiera arte iraun zuen eta puntu bakarrarengatik galdu zuen. Iker Martinez bihartik aurrera Jakan jokaturako den eskola mailako Espainiako txapelketan izango da.



## Duatloia agurtu eta triatloi denboraldia hasi dute

Taldeko beteranoak dabilta batez ere jo eta su. Horrela, Alcobendasen jokaturako duatloiko azken probetakoa, Europako txapelketan, Roberto Gartzia bere mailako 15.a izan zen eta, erakutsi duen erregularitateari esker, Euskal Herriko zirkuitoan V1 mailako bigarren postuan amaitu du. Triatloian, bestalde, sasoiak hasi dira eibartarrak.

Barixakuan Getarian Juanjo Romero V2 mailako onena izan zen eta Txomin Osoro bigarrena juniorretan. Eta zapatuan, oraingoan Bermeon, Edu Oiartzunek, V2 mailako lehen postua eskuratzeaz gain, triatloi esprinteko Euskadiko txapela jantzi zuen; berarekin izan ziren Alberto Agirre eta Iñaki Konde (azken hau bigarrena V3 mailan).



## motzean

### WATERPOLOA

Bihar eguerdian, 13.00etan hasita, igoera zuzenerako lehen partidua jokaturako du Orbea kiroldegian UrbatUrkotronic-eko senior taldeak Lautadaren aurka. Aukera polita izango da maila handiko waterpolo ikusteko. Buelako partidua hurrengo astean izango da Gasteizen.

### PILOTA

Ipurua kiroldegiak hartuko ditu domeka goizean Udaberri torneoko hiru partidua. Hasteko, infantiletan Gutierrez-Albisu Deportiboko bikoteak Goierriren kontra jokaturako du. Bigarrenetan, Narbaiza jubenilak Elgoibarko Odria izango du aurkari lau eta erdiaren barruan. Amaitzeko, Gaztañaga jubenilak Zegamako Azurmendiri egingo dio aurre.



**NEREA, zure joanera kugan utzi duen itzala izan dadila maite izan zaituztenen betiereko babes eta izara.**

J.A. Mogel Ikastolako ikasle, guraso eta langileak

KALITATEA HEZKUNTZAN



## Eibar FT-ari heldu zaio azken kartak jokatzeko ordua

Hiru partidu geratzen dira liga amaitzeko eta Eibar FT inoiz baino getuago dago jaitsiera postuetatik (hori bai, orain arte ez da inoiz azken hiruretako bat izan). Gaur 20.45etan Espanyolen aurka Ipuruan jokatuko duen partidua erabakigarria izan daiteke, batez ere irabazten badu. Sarrerak agortuta daude eta Garitanoren mu-

tilek zaleen berotasuna igarriko dute partiduan. Hurrengo jardunaldian Getaferi egingo diote bisita eta, denboraldia amaitzeko, maila galdu duen Kordoba hartuko dute Ipuruan. Hori bai, iragarritako grebak kontrarik ez badio, 16ko astebururako Federazioak maila guztietarako deitutako greba baitago indarrean.

## Somos Eibarrek baditu igoera faserako aurkariak

Aurreko asteburuan amaitutako liga irabazita, Fernando Fernandez mutlak datorren asteburuan Pontevedran jokatuko duten igoera fasea prestatzen hasi dira. Galiziako hiriburu horretako Atletico Novás-en kantxan jokatuko da fase hori eta, eurekin eta eibartarrekin, Grupo Covadonga eta Granollers izen handikoak izango dira lehian. Igoera garesti salduko da, beraz. Pontevedrako taldean orain dela urte batzuk Arraten jokatuko zuen Arkaitz Vargas lateralak jokatzen du, Granollersen Asobal Ligako taldean normalean jokatzen duten hiru jokalaririk izango dira, eta Grupo Covadonga ospetsuko entrenatzailea Txetxu Villaldea jokalaririk handia izandakoa da. Somos Eibarri dagokionez, Lander Casado eta Eneko Garetxana hainbat arazorekin daude.

## Kopa txapelketa hasiko da foball-zaletuan

Liga amaituta, Kopa txapelketako koadroa osatu dute dagoeneko foball-zaletuan. Biharko lau partiduko honakoak izango dira: Garajes vs Areto eta Durango vs Txoko (09.00), Koskor vs Alkideba (10.30) eta Azkena vs EzDok (12.00). Etzirako geratuko dira beste hirurak: Ipur vs Tankemans (09.00), F. Mujika vs Esmorga (10.30) eta Sporting vs Caserio (12.00). Ligako hamalau taldeetatik zazpi irabazleak sailkatuko dira eta horiei beste bat gehituko zaie, gaitzaileen artean berreskuratua, hurrengo asteburuan final-laudenak jokatzeko. Zozketako emaitzei begira, interes berezia izango du Durango liga irabazlearen eta Txoko hirugarren sailkatutakoaren arteko neurketak.



...eta kitto! 15/V/8 • 929 zkia.

## MAITE MAIORA (korrikalaria):



**“Kirola eta osasuna beti interesatu zaizkit. Gustora egiten dut korrika”**

*Mendaroko atletak Mendiko Lasterketen Espainiako txapela jantzi zuen aurreko domekan Malagako Alhaurin el Granden jokatutako proban. 31 kilometroko proba horretan 2.150 metroko desnibela gainditu behar izan zuten. Bigarren jarraian irabazi du txapel hori. Bera izango da, Alex Txikon eta Bihurriekin batera, martitzenean (hilaren 12an) ...eta kitto!-n, Ana Ramos kazetariak gidatuta, egingo den mahainguruaren protagonista. Gaia “Euskera eta kirola” izango da.*

**- Zelako egoera bizi duzue kirolariok euskerarekin? Arazorik bai?**

Garitanori gertatutakoa zeozer entzun dut, baina neri ez zait halakorik gertatu. Gurea kirol minoritarioa izanda, nire esperientzia ez dut arazorik izan; ez nago kexatzeko moduan. Bestela ere, asko dago egiteko emakumeon presentziaren arloan eta hor bai igaritzen da alde.

**- Zenbat urte daramatzazu kirola egiten?**

Konpetizioan 5-6 urte, baina osasuna eta kirola beti egon dira presente nire bizitzan; hala ere, inon espezializatu gabe. Hori bai, fanatikoa izan naiz eskiarekin eta taularekin. Piskanaka korrika egiten hasi nintzen. Korrika ere, ia beti bakarrik entrenatzen dut: astean sei egunetan edo, batzuetan, egunik libratu gabe.

**- Zelako lasterketei egiten dituzu? Zeintzuk dituzu gustokoen?**

Mendi-lasterketei heldu diet eta 20 kilometrotik maratoirainoko tarteari hartzen dut parte. Urtean ultra bat edo bi egiten ditut. Gurutzaldi-abiadurakoa naiz, ez dut esplosibitate... baina kilometro bertikaletan oso ondo moldatzen naiz.

**- Proba bat aukeratzekotan, zeinek geratuko zinateke?**

Zegama-Aizkorrekin. Bost aldiz egin dut eta, baten kenduta (erorikoa izan nuen eta sorbalda atera zitzaidan), pozik amaitu dut. Munduko onenekin jardunda, zure buruari neurria hartu behar diozu proba horretan. Mendizalea ere banaiz eta hortik jarraituko dut.

**- Mahainguruan Bihurri eta Txikon izango dituzu mahaikide.**

Badakit zeintzuk diren, baina ez ditut larregi ezagutzen. Alex Txikon batzuk zorrotzat jotzen badute ere, tontorra oso gertu izanda jakin izan du erabaki egokiak hartu eta atzera egiten. Biek ere badakite sufritzen.

**- Hemendik gutxirako erronkarik?**

Aurten Munduko Kopa egiteko asmoa dut maiatzaren 30ean. Aurretik, dena dela, hemendik 15 egunera kilometro bertikal bat egingo dut eta Zegama-Aizkorri ere izango naiz.

## Lau eibartar Apuko mendi maratoian

Aurreko zapatuan Apuko mendi maratoi extremearen ziren Kalamua Korrikalari Taldeko Aitor Lameiras eta Jose Luis Baz. 42 kilometroko proba horretan parte-hartzaileek pilatutako 6.000 metroko desnibela gainditu behar zuten. Lameirasek 19. postuan amaitu zuen (sei ordu eta 7 minutu) eta Baz 46. lekuan iritsi zen (zazpi ordu eta minutu bi) beterean bigarren mailako onena izanda. 65 kilometroko proban, bestalde, Asier Gardek 49. postuan helmugaratu zen (12 ordu eta 45 minutu) eta Iñaki Lopez de Gereñuk ezin izan zuen amaitu.



maiatzak 25, astelehena  
08:45 - 14:45  
EIBAR PORTALEA

### egitaraua

- "Etxeko eta kaleko hizkuntza erabileraren arteko loturak: Lasarte-Oriako ikerketa bat".  
**Pello Jauregi**, EHUko irakaslea.
- "Familia bidezko transmisioa: guraso euskaldunen diskurtsoak".  
**Malores Etxeberria**, Hernaniko Udaleko euskara teknikaria.  
**Nekane Jauregi**, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara teknikaria.
- "Gurasoak Berbetan: guraso eta familiei zuzendutako mintzapraktika taldeak".  
**Maider Aranberri**, ...eta kitto! Euskara Elkarteko teknikaria.
- "Igandeak jai. Familia giroan euskaraz".  
**Naroa Cuesta**, Geu Elkartea.
- "Erreferenteen garrantzia. Prestigioaren transmisioa".  
**Gaizka Garitano**, Eibar Kirol Elkarteko entrenatzailea.
- "Bertsolaritza eta euskararen transmisioa".  
**Miren Artetxe**, EHU-ko irakaslea.
- "Mahaingurua". Dinamizatzailea:  
**Jaime Alfuna**, Urtxintxa.

# euskararen transmisioa mintegia



## IZEN EMATEA ZABALIK

**MAIATZAREN 21 ERA ARTE**  
normalizazioa@etakitto.eus

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:





## NEREA BLASCO (zumba irakaslea): "Edozeinek dantzan egiteko koreografiak egingo ditugu"

Bihar 16.00etatik 18.00etara zumba maratoni solidarioa egingo da Ipurua kiroldegian, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioarentzat dirua batzeko asmoz. Ekitaldiaren ideia gaur egun Gasteizen bizi den Nerea Blasco eibartarrak izan zuen eta, hainbaten laguntzari esker, zapatu arratsaldea zumba-ren erritmora kirol pixkat bat eginda ederto pasatzeko aukera izango du nahi duen guztiak.

### - Nolatan bururatu zaizu zumba maratoni solidarioa antolatzea?

Nere ahizpak Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioan egiten du beharra eta, diru premian daudenez, eurei laguntzeko zer-bait egitea pentsatu nuen eta horrela bururatu zitzaizkan zumba maratoni solidarioarena. Izan ere, federazioa diru-laguntzen menpe egon da beti eta, horiek gero eta urriagoak direnez, azken aldi honetan diru kontuekin benetan larri dabilta.

### - Aurretik ere zumba kontuetan arituko zinen, ezta?

Bai, nik Madrilen ikasi nuen ZIN (Zumba Instructor Network) titulua eskuratzeko eta gaur egun horretan egiten dut beharra, gimnasioetan zumba eta horrelakoen inguruko klaseak ematen.

### - Azken urteotan gero eta gehiago entzuten da "zumba" berba, baina zer da?

Aerobic eta erritmo latindarren arteko nahasketa modukoa da, aerobic-ean ordubete ematen duzu koreografia bakarrarekin eta zumban, berriz, aldatzen joaten zara.

### - Nolako izango da biharko "zumbathoia"?

Ordu bi iraungo duen jaialdia izatea nahi dugu, ariketa fisikoa egitea baino, jendeak ondo pasatzea da asmoa. Azken batean, besteren bati laguntzeko dirua modu dibertigarrian emateko aukera emango dio jendeari. Koreografiak oso errazak eta sinpleak izango dira, edozeinek dantzan egiteko modukoak eta saioa gidatzen beste sei irakasle (Lide Agirre, Ainhoa Bergara, Marina Crucelaegui, Nerea Lodosa, Iratxe Nuñez eta Mamen Palacinek) lagunduko didate. Ekitaldia giroten DJ Jon-ek jardungo du. Horiekin batera, Alzolako Urak-ek parte hartzen dutenentzat ur botila mordo oparitu dizkigu eta Felipe Zamakola kirol patronatoko zuzendariak ere laguntza handia eman digu. Sarrerak 6 euro balio du (10 urtetik beherakoek ez dute ordainduko) eta parte hartzen dutenek sarrerarekin batera Vicente Berrizbeitia enpresak finantziatu duen ekitaldiaren pultsera jasoko dute eta, gainera, ekitaldiaren amaieran herriko enpresa kolaboratzaileek oparitutako produktuen zozketetan parte hartzeko zenbakia ere emango zaie. Sarrerak kiroldegiko takillan egongo dira salgai.



## Zazkel taldearen kontzertua


Aurreko domekan Beleko tabernan Eñaut Martikorena, Eli Pagola eta Jokin Bergara eibartarrak eskaini zuten saiora gerturatutakoek ederto pasatu zuten arratsaldea. Asteburu honetan, berriz, Zazkel taldeak kontzertua emango du, zapatuan 22.30etatik aurrera. 80ko hamarkadako talde euskaldun zein talde atzerriarren erritmoetan oinarritutako taldeak "euskal pop erradikala aldarrikatzen" du, "entzuleari dantzan egin eta abesteko aukera eskainita".



LEIRE ITURBE

## Argazki erakusketak martxa betean

Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek antolatutako Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan, gaur arratsaldean erakusketa bi inauguratuko dituzte: Portaleko erakusketa aretoan hilaren 31ra arte ikusgai egongo den Luis Alberto Franke, Andres Indurain eta Mikel Mitxelenaren lanak biltzen dituena; eta Topa-



lekuan Enrique Lorenzo Deporrek Argazkilaritza Taldeko kidearen argazkiek osatutakoa (hau ere hilaren 31ra arte egongo da zabalik). Horrez gain, aurreko asteaz geroztik beste hauek bisitatzeko aukera dago: Deporren, Argizaio-la Trofeoa; Untzagako jubilatutako etxean, Gipuzkoa Nazioarteko Saria; eta Ambigu eta Portalea tabernetan, berriz, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen erakusketa kolektiboak.

Mikel Mitxelenak Jaizkibelgo irudiak erakusten ditu Portalean.

## "Tre-mendas" antzezlanak gaur Coliseoan

Gaur 20.30etan Maria Casal konpainiak "Tre-mendas" antzezlanak eskainiko du Coliseo antzokian. Luis Gimeno zuzendutako lan honetan hiru emakumek, M<sup>a</sup> Jose del Valle, Lucia Alvarez eta Maria Casalek hartzen dute parte, lau obra labur eta bereziki antzezleentzat idatzitako sei baka- rrizketa interpretatzen. Sarrerak 8 euro balio du eta ikuskizunaren aurretik leihatilan erosteko aukera egongo da.



## Umeendako antzezlanak aukeran

Bihar arratsaldean abiatuko da Debabarreneko Eskolarteko XXXI. Antzerki Erakusketa, 17.00etatik aurrera Coliseoan Ytuquepintas-ek eskainiko duen "Sueños de arena" lanarekin (5

euro). Egitarauaren barruan taularatu-ko diren gainerako antzezlanak Hez- kuntza Esparruan egingo dira, 15.00etan eta sarrera doan izango da: datorren martitzenean "Codigo postal 00" taularatuko du Engruna Teatre-k, euskeraz. Maiatzaren 18an, "Kontu kontari" (La Enana Naranja, euskeraz) ikusteko aukera egongo da. Maiatzaren 20an, "El sobrino de Méliès" (Cachivache); maiatzaren 26an, "Entre picaros anda el juego" (La Quimera de Plástico); eta maiatzaren 27an, Kixka talde eibartarraren "Bolaluma" euskerazko ikuskizunak itxiko ditu jardunaldiak.



## Musika Eskolako kontzertua

Datorren eguaztenean, 18.00etatik aurrera Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua hartuko du Coliseoak (sarrerak 3 euro balio du). Gaur egun zazpi urtetik gorako 300 bat lagunek dihardute Eibarko Musika Eskolan musika lengoia, koroa edo instrumenturen bat ikasten zein eskolan bertan osatutako talderen batean jotzen eta ikasturte amaierako emaldian kurtsuak ikasitakoak jendearen aurrean erakusteko aukera izango dute.



## Zaldibarko argazkilariak

**Aurreko zapatuan Ilargi Zaldibarko Argazkilari Taldearen erakusketa kolektiboa zabaldu zuten** El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan. Jon Agirre, Antonio Villanueva, Jon Iriondo, Delfin Zubizarreta, Rafa Iraeta eta Joseba Arginonizen lanekin osatutako erakusketa maiatzaren 30era arte egongo da zabalik, 11.00etatik 21.00etara.

## Euskal Jaian parte hartzeko aukera

**Euskal Jaiaren 50. edizio honetako** zapatu eguerdiko azokarekin batera jokatu diren herri-kiroletan jendeak parte hartu ahal izango du. Hamabi lagun behar dira: sei mutil eta sei neska. Izena Klub Deportiboan eman daiteke astelehen eta eguaztentean, 19.00etatik 20.30etara.

## laburrak

### UMEENDAKO INGELESA

Bihar 18.00etan "Little Chef" 2-8 urte bitarteko umeendako sukaldaritza tailerra eskainiko dute, ingelesez, El Corte Ingleseko erakusketa aretoan, Kids&Us-ekin elkarlanean antolatutako egitarauaren barruan.

### METALMANIA ELGETAN

Maiatzaren 15ean, 21.30etan Metalmaniak, Metallicaren musikari eskainitako taldeak kontzertua emango du Elgetako Espaloian. Sarrerak aldeztu aurretik (8 eurotan) erosteko [www.appticketing.com](http://www.appticketing.com) webgunera jo daiteke eta egunean bertan leihatilan ere ipiniko dituzte salgai (10 eurotan).

### AMAÑAKO DANBORRADA

Datorren egunean hasiko dira Amañako danborradarako entseguak. Umeen entseguak 19.00etan izango da eta helduena, berriz, 20.00etan. Biak Amaña herri ikastetxean egingo dira.

# Berbetan egitasmoaren lan-batzordeak abiatu dira

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Berbetan mintzapraktikako egitasmoaren barruan, batzorde bi antolatu berri dira eta jada egin dute lehenengo bilera. Batzordeetako batean Berbetan programa orokorra eta Gurasoak Berbetan azpiatalaren jarraipena egingo da. Euskaltegi eta ikastetxeetako ordezkariak, Udalekoak eta ...eta kitto!koak eta Berbetaneko pare bat kidek osatzen dute lan-batzorde hori. Bestean berriz, Udaleko eta ...eta kitto!ko ordezkariak gain, Merkataritza Bulegoko ordezkari bat eta dendari eta ostalarien ordezkari bana daude. Batzordeetan urte osorako kronograma, hau da, burutuko diren ekimen eta helburuen plana aurkeztu eta eztabaidatu ziren. Hona hemen hemendik eta udara bitartean aurreikusten direnak:



## Berbetan orokorra

**Maiatzak 12, asteartea:** 19:30etan ...eta kitto!-n: "Euskera eta kirola maingurua"

**Maiatzak 15, ostirala:** Berbetaneko taldeen arteko tribial lehiaketa

**Maiatzak 30, zapatua:** Euskal Herri mailako Mintza Egunera irteera (Beran)

**Ekainak 5, ostirala:** Berbetaneko taldeen arteko tribial lehiaketa

**Ekainak 19, ostirala:** Tribial lehiaketako sari banaketa eta ikasturte amaierako afari-merienda

## Gurasoak berbetan

**Maiatzak 10, domeka:** Gurasoak Berbetan eguna

**Maiatzak 22, ostirala:** Barixakuak jolasian

**Maiatzak 25, astelehena:** 18:00etan ...eta kitto!n:

Haserraldiari buruzko hitzaldia (Nerea Mendizabal piskopedagogo)

**Ekainak 18, osteguna:** 17:00etatik aurrera: Zirko tallera Urkizuko parkean

## Ostalariak berbetan

**Ekainak 15-17:** "Eskatuidazu euskaraz" pinak banatuko dira tabernarien artean. San Juanetara begira, herritarrek euskaraz eskatzeko animatzeko.

## Dendariak berbetan

**Uztailak 10-17:** Erosketa euskaraz egiteko lema lehiaketa

**Uztailak 22-24:** Lema lehiaketako parte-hartzaileen artean poltsa banaketa eta erosketa balearen zozketa.

\*Lema irabazlea herritarren artean erabakiko da udazkenean eta hori erabiliko da Gabonetako kanpainan.



Bestalde, nabarmentzekoa da, aurtun, dendariak eta ostalarien artean Berbetanek izan duen garapena, izan ere 75 taberna eta 201 dendak egin dute bat egitasmoarekin. Positiboa bada ere, ez da erraza horrelako bolumen handiarekin lan egitea, informazioa edo materialaren banaketa zaildu egiten da eta edozein erabileraren neurketa egiteko adibidez, kalea edo zonaldeka egin beharko da.

Ikasturte berriarekin batera Gurasoak Berbetan eta Berbetan orokorrean izena-emateko kanpaina indartsua aurreikusten da, batez ere guraso gazteen inplikazioa lortu nahian.

## Kongori buruzko hitzaldia

Maiatzaren 19an, asteartea, "Gatazkarik gabeko teknologia" dokumental-hitzaldia eskainiko du Alboan elkarteak ...eta kitto!ko lokaletan. Orain dela 20 urte hasi zen Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazka eta egoera larriagotu egin da eremu hartako baliabide mineralak lortzeko eta kontrolatzeko liskarren ondorioz. Nazio Batuen eta hainbat GKEren txostenek agerian utzi dute lotura dagoela mineral horiek atera eta salerostearen eta talde armatuen finantziazioaren artean. "Handik ateratzen diren zenbait mineral gure eskuetara iritsi daitezke, telefono mugikorretan, tabletetan, ordenagailuetan, autoetan edo bitxietan erabiltzen baitira. Eta, hain zuzen, hori da saihestu nahi duguna. Orain aukera bat dugu. Europar bozkatzen ari den erregulazio proposamena gogortuz", azaldu digute Alboan-ekoek. Hitzaldia ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu du Illunabarrian programaren barruan eta Urkizuko lokaletan izango da arratsaldeko 19.00etan.

## Ipurterre Ipuin Lehiaketak baditu irabazleak

Asteartean bildu zen epaimahia eta baditugu XXI. Ipurterre ipuin eta gutun lehiaketako irabazleak:

### MAILA

LH 1-2

LH 3-4

LH 5-6

DBH 1-2

DBH 3-4

### IRABAZLEA

Lucia Alonso Bravo

Joanes Lazarobaster Arrizabalaga

Maddi Tejada Delgado

June Ibarloza

Maddi Alberdi

### IKASTETXEA

LA SALLE ISASI

J.A. MOGEL IKASTOLA

SAN ANDRES

MOGEL ISASI

MOGEL ISASI

- Irabazleen lanak, maiatzeko Txikitto! hilabetekarian argitaratuko dira.
- Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 13an izango da goizeko 10:00etan Unibertsitate Laborelako Antzokian.
- Eriz magoaren emanaldia ere izango dugu bertan.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRATI, hillairen 13an urtetxua beteko dozu-eta. Zure gurasuen eta, batez be, zure ahizpatxo Naiaren partez. Muxu asko!



Zorionak, EÑAUT, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, EKHiren partez.



Zorionak, DANEL, astelehenian zortzi urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Aner eta Noaren partez.



Zorionak, MIKEL, zure urtebetetzian. Muxu haundi bat, txapeldun, famelixa guztiaren eta, batez be, Patxi lehengusuaeren partez.



Zorionak, ZALOA!!! Maiatzaren 5ian urtia bete zenduan-eta. Zelan poztu diguzun bitzita! Amatxo, aitatxo eta aiton-amonen partez.



Zorionak, DANEL Makibar Argiarro, etzi lau urte egingo dozuz-eta. Egun on-ona igaro! Etxekuen eta, batez be, Libe zure arrebaeren partez.




Zorionak, IRATI!!!, maiatzaren 1ian zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IKER Artetxe Mujika, atzo bi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZARO, astelehenian 10 urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MADDALEN, domekan 10 urte egingo dozuzelako. Muxu asko etxeko guztien partez!



Zorionak, MARINA Correia, astelehenian 13 urte egingo dozuz-eta. Gurasuen eta nebaren partez.



Zorionak, IRATI, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta. Zure aitxita eta amamaren partez. Askoi maitte zaittugu.



Zorionak, LUKEN (martxuan hiru urte egin zenduaz) eta AIMAR (sei egingo dozuz bixar). Gurasuen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARTINA, gure printzesa! Zure neba YAGO eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAI, hillairen 4an bost urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.

Zorionak, FELI! Famelixa guztiaren eta, batez be, Manuren aldetik.



## hildakoak

- Jesus Eguren Laskurain. 89 urte. 2015-IV-30.
- Antonia De Arriba Malaga. 79 urte. 2015-V-1.
- Rafael Gomez Rodriguez. 87 urte. 2015-V-2.
- Nerea Gallastegi Aizpurua. 39 urte. 2015-V-5.
- Ana Sanz Elorza. 75 urte. 2015-V-6.

## jaiotakoak

- Irai Ajuriagerra Garcia. 2015-IV-22.
- Dylan Andrade Fil. 2015-IV-27.
- Iker Sampedro Gonzalez. 2015-IV-30.
- Udai Mallagarai Aierza. 2015-IV-30.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

9an: 19.45, 22.30  
10ean: 17.00, 20.00  
11n: 20.30

"El último lobo"

Zuzendaria: J. Jacques Annaud



(2 ARETOAN)

9an: 17.00, 19.45, 22.30  
10ean: 17.00, 20.00  
11n: 20.30

"Tiempo sin aire"

Zuzendaria: Andres Luque



(ANTZOKIAN)

9an: 19.45, 22.30  
10ean: 20.00  
11n: 20.30

"Suite francesa"

Zuzendaria: Saul Dibb



(1 ARETOAN)

9an: 17.00  
(ANTZOKIAN)  
10ean: 17.00

"Tom Txiki eta ispilu magikoa"

Zuzendaria: Ernesto Padrón



## BARIXAKUA 8

### INDIANOKUA

**16.30.** Sexu aholkularitza eta Disparatea. Gaztelekuan.

### GURE ESKU DAGO

**19.00/20.00.** "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etabar saltzea. Deporren.

### ANTZERKIA

**20.30.** "Tre-mendas" antzezlan, Maria Casal konpainiaren eskutik. 8 euro. Coliseoan.

### ELKARRETARATZEA

**21.00.** Lurrikararen biktimen omenez. Eibarko nepaldarrek antolatuta. Untzagan.

## ZAPATUA 9

### BIDEZKO MERKATARITZA

**10.30/13.30.** Produktuen salmenta, Aldatzen-en eskutik. T. Etxebarrian.

### TXOLARTE EGUNA

**11.00.** Beste herrietatik etorritakoei ongietorria, Ustekabe fanfarreak lagunduta. Untzagan.

**11.45.** Jaialdiaren hasiera Astelena frontoian: pregoia, Eibar fobal taldeko nesken eskutik. Oroigarriak banatzea.

**12.15/13.00.** Freddy magoaren ikuskizuna.

**13.00/13.45.** Dantzak eta jokoak.

**13.45/15.00.** Luntxa eta bazkaria.

**15.00/16.30.** DJ-ak giroitutako dantzaldia eta "photocalla"-a.

### OSPAI EGUNA

**14.00.** Bertso bazkaria, Unai Gaztelumendi, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendirekin (txartelak Beleko, Depor eta Hirurok tabernetan salgai, 8 eurotan). Urkizun.

**18.00.** Manifestazioa, Untzagatik Guardia Zibilaren koarteleraino.

### MARATOI SOLIDARIOA

**16.00.** "Zumbathon", zumba maratokia, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioaren alde. Sarrera: 6 euro (doan 10 urtetik beherakoentzat). Ipuru kiroldegian.

### ANTZERKIA

**17.00.** "Sueños de arena" (Ytuquepintas, Bartzelona) umeendako antzezlan, XXXI. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. 5 euro. Coliseoan.

### INDIANOKUA

**17.00.** Disparatea. Gaztelekuan.

## DOMEKA 10

### GURASOAK BERBETAN EGUNA

**11.30.** Kultur ibilbidea Eibarko alde zaharrean, Arantxa Lasaren eskutik. San Andres eliza ingurutik abiatuta. Ondoren, bazkaria eta jolasak

### TXISTU KONTZERTUA

**12.30.** Usartza Taldea. Udaletxeko arkupeetan.

### INDIANOKUA

**17.00.** DPlay Wii eta Disparatea. Gaztelekuan.

## ASTELEHENA 11

### IKASTEN

**10.00.** "Izarrei begira" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

**16.00.** Sendabelarren Foroa: "Basa-landare jangarriak". Portalean.

## MARTITZENA 12

### IKASTEN

**10.00.** "XIX. mendeko filosofia" (2. atala), Marisa Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

### ANTZERKIA

**15.00.** "Codigo Postal 00" (Engruna Teatre, Bartzelona) umeendako antzezlan, euskeraz, Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. 5 euro. Coliseoan.

### JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

**17.00 eta 18.30.** Portalean.

### SOLASALDIA

**18.30.** "Ondo egindako lana": M. Iraolagoitia (Microdeco) eta M. Lazpiur (Lazpiur Taldea). Sabin Azua, B+I Estrategia-ko zuzendariak gidatuta. Armeria Eskolan.

### MAHAINGURUA

**19.30.** "Euskeraz eta kirola" mahaingurua, Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eta Maite Maiorarekin. Moderatzailea: Ana Ramos kirol-kazetaria. ...eta kitto!-n.

## EGUAZTENA 13

### IKASTEN

**09.10.** Mendi-ibilaldia, Hondarribira. Bazkaria. Trenaren irteera-ordua, Ardantzatik (Estaziñotik, 09.14etan).

### IPURTERRE

**10.00.** Ipuin lehiaketako sari-banaketa ekitaldia eta Eriz magoaren ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

### KONTZERTUA

**18.00.** J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierakoa. 3 euro. Coliseoan.

### BILERA

**19.00.** Legarreko jaiak prestatzeko bilera. Legarre Gain Elkartean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

## EGUENA 14

### IKASTEN

**10.00.** "Musika erromantiko eta nazionalista", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

### ENPLEGU-TAILERRA

**10.00/12.00.** "Psikoteknikoetan entrenamendua". Portalean (ikastaro gelan).

### KALERATZEAK STOP

**19.00.** Plataformako bilera irekia. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Nahiko ahul hasiko duzu astea; kostako zaizu buelta ematea. Ez duzu gehiago behar izango, lasai ibiliko zara-eta.

### TAURUS

Gauzak zuk nahi bezala irten ez arren, sinisten duzun horren alde borrokatu behar duzu. Ea gustora geratzen zaren.

### GEMINI

Gero eta gertuago dago bozkatzeko sasoa. Ea tirabirak eta burukominak lehenbailehen pasatzen diren, arren!

### CANCER

Usteko duzu aste bakoitza aurrekoaren berdina dela, baina ez da horrela. Gauza berriak gertatzen dira egunero, kontzitu!

### LEO

Berbetako gogoarekin ibiliko zara egun batzutan. Begira lagunen aurpegiak, noiz isilduko zain. Barregarria gero!

### VIRGO

Dena alde izango duzu zure helburuak betetzeko, baina azken unean adorea faltako zaizu. Ea azken pauso hori...

### LIBRA

Erabat asaldatuta egongo zara. Mila gauza izango dituzu buruan eta denak ondoen betetzea nahi izango duzu.

### SCORPIUS

Asteburu ederra igaro eta gero, animo zoragarriarekin hasiko duzu astelehena. Udaberria da zure sasoa: argi dago!

### SAGITTARIUS

Zure iritzia emateko gogo baduzu, ez gorde barruan! Ez uste zure berbak besteenak baino gutxiago balio dutenik.

### CAPRICORNIUS

Harro egongo zara egindakoarekin, baina kontuan izan behar duzu ez duzula dena behar den moduan egin.

### AQUARIUS

Nahiko lanpetuta ibiliko zaren arren, ez duzu umore ona galduko. Gustoko dituzun gauzak eginda, besteak zer?

### PISCIS

Zertarako zure bizitzaren gorabeherak inori kontatu? Ondo aukeratu nori esan eta nori ez. Badakizu nolakoak diren!



Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**telefono jakingarriak**

SOS deiak.....112  
 Pegora .....010  
 Udaletxea .....943 70 84 00  
 Portalea.....943 70 84 39  
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
 Mankomunitatea 943 70 07 99  
 Debegesa .....943 82 01 10  
 KIUB .....943 20 38 43  
 Epaitegia .....943 03 34 00  
 Iberdrola .....901 20 20 20  
 Naturgas.....902 12 34 56  
 DYA Larrialdiak ..943 46 46 22  
 Gurutze Gorria...943 22 22 22  
 Mendaro osp.....943 03 28 00  
 Anbulategia .....943 03 25 00  
 Torrekua .....943 03 26 50  
 Errepideak.....902 11 20 88  
 Ertzaintza .....943 53 17 00  
 Eusko Tren .....902 54 32 10  
 Pesa.....902 10 12 10  
 Taxiak .....943 20 30 71  
 .....943 20 13 25  
 Alkohol.Anon.....629 14 18 74  
 Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 21.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 22.50etara ordu. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 22.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu eta 19.50etatik 22.30etara ordu.

**EIBAR-BILBO.** Lanegunak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.40 eta 20.40. Jaiegunak: 12.00 eta 20.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.55etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**EIBAR-LOIU.** Egutegia: 05.50, 08.35, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**erakusketak**

- ✓ **Maiatzaren 15era arte**  
 "ANIMAL CULTURE" Jesika Martinez-Alcocer artistaren proiektua.  
 Armagintzaren Museoaren harreralekuan.
- ✓ **Maiatzaren 30era arte**  
 ZALDIBARKO ARGAZKILARI TALDEAREN erakusketa kolektiboa.  
 El Corte Ingleseko ekitaldia aretoan.
- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**  
 ENRIQUE LORENZO Deporreko Argazkilaritza Taldeko kidearen argazkiak. *Topalekuan.*  
 LUIS ALBERTO FRANKEREN "Patagonia, mugalde australa" erakusketa. *Portalean.*  
 MIKEL MITXELENAREN "Jaizkibel, kolore eta formen sinfonia" erakusketa. *Portalean.*  
 34. ARGZAIOLA lehiaketa. *K. Deportiboan.*  
 KLUB DEPORTIBOKO Argazkilaritza Taldekoen lanak. *Ambigú eta Portalea tabernan.*  
 GIPUZKOAKO NAZIOARTEKO SARIA.  
 Untzagako Jubilatut Etxean.

**farmaziak**

- ✓ **barixakua 8**  
 EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 9**  
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 10**  
 EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 11**  
 EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 12**  
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztiena 13**  
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **eguna 14**  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 15**  
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

**GAUEZ BETI -2015EAN-Elorza (J. Gisasola, 18)**

**ikastaroak**

- ✓ **Antzerki Tailerra**  
 Maiatzaren 8, 15, 22 eta 29an (17.30-18.30). Tarteka sormen espazioan (Elgetakale, 1)
- ✓ **Jabetze Eskola**  
 Ekainera bitartean. Amodioa eta sexualitatea bizitzaren bigarren erdian (maiatzak 22 eta 29, ekainak 5 eta 19); Autodefentsa Feminista II (ekainak 6 eta 7); eta Autodefentsa Feminista gazteentzat (ekainak 13 eta 14). Izen-ematea: Pegoran.
- ✓ **Argazki-tailerra: "Workshop: retoque y edición digital"**  
 Ekainaren 6an. Informazioa: argazkilaritza@deporeibar.com

6				4				
1	2	9				7	4	
	8		1	9				
	3		7		2			6
		7				5		
4			9		3		7	
				2	1		6	
	1	6				2	5	3
				3				7

**SUDOKUA**

3	8	4	9	1	6	5	7	2
2	9	6	7	4	5	1	3	8
5	7	1	3	2	8	6	4	9
6	5	9	4	3	7	8	2	1
1	3	7	8	6	2	4	9	5
4	2	8	1	5	9	7	6	3
9	1	3	6	8	4	2	5	7
7	4	2	5	9	1	3	8	6
8	6	5	2	7	3	9	1	4

AURREKOEN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Logela alokatzen da Eibarren, sukalde eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 688-647244.
- Pisu berriztua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan udarako edo ikasturterako. San Ignacio konplexuko edifizio berdean. Tel. 645-716847.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- 200 edo 400 cc.-ko motorra erosiko nuke. Gauzez deitu. Tel. 654-601946.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Txomon. 14 m<sup>2</sup>. Komuna eta autoa garbitzeko lekuarekin. Tel. 686-611957.
- Taberna traspasatzen da Eibarren. Alokairua: 900 euro. Traspasoa: 6.000 euro. Tel. 630-644175. Maria.
- Garaje itxia salgai Untzaga plazan. Tel. 688-678934.

### 3.2. Errentan

- Lokala traspasatzen da Isasi 19an (Mahatsondo). Tel. 686-154867.
- Garaje itxia salgai Txomon. Prezioa adosteko. Tel. 943-207870.
- Gazteentzako lokala alokagai Jardinetan. 132 m<sup>2</sup>. Berriztuta. Etxerik ez ondoan. Tel. 656-756485.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Esperientziadun ekonomilaria eskaintzen da errenta aitopenak egiteko. Prezio onean. Tel. 688-856459.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-124942.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 691-726738.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-971930.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da astegunetan nagusiak zaintzeko eta laguntzeko. Tel. 695-158804.
- Emakumea eskaintzen da edozein motatako garbiketa lanak egiteko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita gauetan eta asteburuetan ere. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 645-702766.
- Mutila eskaintzen da mezulari lanerako (gidatzeko karnetarekin) eta dendari edo banatzaile jarduteko. Tel. 698-451205.
- Neska euskalduna, Filologiako ikaslea, eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztailean. Tel. 680-923291.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, sukalde-laguntzaile moduan eta garbiketak egiteko. Tel. 627-162936.
- Emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Tel. 625-785101.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 636-841158.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-860933.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko eta orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 631-343232.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-481028.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldeko 18.15etatik aurrera. Baita asteburuetan ere. 689-391261.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 653-010861.
- Mutila eskaintzen da baserrian lan egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 622-321095.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientziarekin. Tel. 622-321095.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erresidentzietan eta etxeetan lan egindakoa. Tel. 622-037598.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gauzez, orduka edo ospitalean. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gauzez, orduka edo ospitalean. Tel. 632-966192.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel. 650-513412.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta premia berezia dituzten pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 688-639371.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ileapaintzaile jarduteko. Tel. 632-692463 eta 688-394038.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta dendari jarduteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-123667.

## 4.2. Langile bila

- Tabernaria behar da esperientziarekin barran eta sukaldean. Tel. 637-440511.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-679682.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 673-600545.
- Klase partikularrak ematen ditut LH eta DBH mailatan. Euskeraz. Tel. 610-980628. Irati.



## Hyundai i30 berria.

Eramaizu Hyundaiko Cinking-ekin.

Prestatu zaitetz, orain Hyundain... Cinking lagako zaituen i30 berria kaleratzen dugu-eta:

- 5 urteko garantia km mugarik gabe
- 5 urteko asistentzia errepidean
- 5 urteko mantentze-lana
- eta orain Hyundai i30 eguneko 5€-gatik

<b>5</b> € /eguneko (150€ hilean)	<b>60</b> kuota	<b>Zordun-tasa:</b> 7,75%
	<b>Sarrera:</b> 4.048,40€	<b>UTB:</b> %9,46

Hyundai i30 5p 1.4 MPI (100CV) ESSENCE-rako eskaintza



**OARSO CAR ELGOIBAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZKOARAKO  
**943 74 14 80**  
Olaso Polig., 17.



Hyundai i30 Gama Berria.  
CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 104-169.  
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,0-7,3

Hyundai i30 5p 1.4 Mpi (100CV) ESSENCE-erentzat finantziazio adibidea. Prezioa eskura ordainduta 11.490,00€. Sarrera 4.048,40€. 60 hileko epea, 146,95€-ko kuota 1 eta 150,00€-ko 59 kuota. Zordun Tasa Finkoa %7,75, T.A.E. %9,46 (T.A.E.-ak eta lehen kuotak aldaketa txikia izan dezakete kontratua sinatzeko egunaren eta kuotak ordaintzeko egunaren arabera). Irteera komisioa %3,00 223,25€. Kreditorearen Zerbaleko Osoa 7.441,60€. Kreditorearen Kostu Osoa 1.778,60. Zordundutako Zerbaleko Osoa 9.220,20€. Prezio Osoa Epeka 13.288,60€. Kontratazio eguna 2015/05/15 eta lehen ordainketa 2015/06/05 izanik. 2015/05/31ra arte balioko du eskaintza honek. Santander Consumer, E.F.C., S.A.-ren eskaintza, bere azterketa eta onarpenari lotutakoa. Penintsulan eta Balearrean bizi direnentzako eskaintza. Matrikulazioa, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta PIVE 6 Plana (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotutakoa) bane. Zehaztapen eta baldintzei lotutako Cinking Programa. Ibilgailuaren finantziarioari lotutako mantenimendua. Begiratu Hyundai.es/cinking-en.

EIBARTARROK

*garaile!*

**Bildu zaitetz  
aldaketara**

**Ekitaldia:**

Maiatzaren 11n 19:00etan Untzaga plazan.

EMAN BOTOA · VOTA

**ehbildu**

Igone lamarain

Xabier Olano



# I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

